



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

EUSKARA, KULTURA ETA NAZIOARTEKOTZEAREN
ARLOKO ERREKTOREORDETZA
VICERRECTORADO DE EUSKERA, CULTURA
E INTERNACIONALIZACIÓN

Erabakia, 2021eko martxoaren 3koa, Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordearena, Euskarazko Ikasmaterialgintza eta Eskuliburugintza sustatzeko proiektuen Balioeste Batzordearen 2021eko martxoaren 2ko agiria ontzat emateko dena (2020ko azaroaren 26ko deialdia)

Errektoreorde honen 2021eko martxoaren 3ko erabaki honen bidez, proiektuen Balioeste Batzordeak Euskarazko Ikasmaterialgintza eta Eskuliburugintza sustatzeko 2020ko deialdian aurkeztutako eskaerei buruzko agiria berresten da (2021eko martxoaren 2ko agiria).


Horrenbestez, honako hau


Erabaki dut:

Lehena.- Ikasmaterialen eta eskuliburuen proiektuak Balioesteko Batzordearen 2021eko martxoaren 2ko agiria eta han agertzen diren erabakiak ontzat ematea.

Bigarrena.- Martxoaren 17ra bitarteko epea irekitzea helegiteak Erregistro Orokorraren bidez aurkezteko.

Leioan, 2021eko martxoaren 3an.


M. Juncal Gutierrez Mangado
UPV/EHUko Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen
arloko errektoreordea



Euskarazko ikasmaterialgintza eta eskuliburugintza sustatzeko 2020ko deialdia: Balioeste Batzordearen Agiria

2020ko azaroaren 26an argitaratu zen Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko errektoreordearen deialdia euskarazko ikasmaterialgintza eta eskuliburugintza sustatzeko helburua duena.

Han esaten zen, besteak beste, 2020ko abenduaren 15era arteko epea irekitzen zela eskaerak egiteko. Behin epe hori amaitu eta gero, Argitalpen Zerbitzuaren eta Euskara Zerbitzuaren artean osatutako Balioespen Batzordeak bere erabakia hartu du, eta agiri honen bidez ematen du erabakiaren berri. Honela gelditzen da deialdi honetako behin-behineko ebazpena (oharra: erredaktatzaile nagusiaren edo eskaera bidali duen irakaslearen NAN zenbakiaren arabera daude ordenatuta lanak).

- **A modalitateko proposamen hauek ontzat eman dira**, eskuineko zutabearen adierazten den formatuan:

	Erredaktatzaile nagusiaren NANa	Formatua
1.	14585298D	ikasmateriala
2.	14941745W	eskuliburua
3.	15366765M	eskuliburua
4.	15954970P	eskuliburua
5.	15962329F	ikasmateriala
6.	15983544Q	ikasmateriala
7.	16043286G	eskuliburua
8.	16051917X	eskuliburua
9.	22731394	eskuliburua
10.	30586600G	ikasmateriala
11.	30620769H	ikasmateriala
12.	30653439M	eskuliburua
13.	30676931Z	ikasmateriala
14.	44171143B	ikasmateriala
15.	45673756B	eskuliburua
16.	45818028W	eskuliburua
17.	72403192C	eskuliburua
18.	72441314P	eskuliburua
19.	72456599K	ikasmateriala
20.	72738533K	ikasmateriala
21.	78869383Z	eskuliburua
22.	78917719G	ikasmateriala
23.	Y1689169T	ikasmateriala



- **B modalitateko proposamen hauek ontzat eman dira**, eskuineko zutabeen adierazten den formatuan:

	Erredaktatzaile nagusiaren NANA	Formatua
1.	14238189Q	Eskuliburua; bertsio digitala.
2.	72725033E	Eskuliburua: paperezkoa edo digitala den aurrerago erabakiko da.

- **Proposamen hauek** ez dira bat etorri deialdiaren helburuarekin eta oinarriekin, eta **ez dira onartu**, eskuineko zutabeen adierazten diren arrazoiengatik:

	Erredaktatzaile nagusiaren NANA	Arrazoiak
1.	14263323B	Proposamenaren formatua ez dator bat deialdi honetarako eskatzen denarekin: Powerpointa da
2.	14265772E (I)	Proposamena ez dator bat deialdi honen xedearekin
3.	14265772E (II)	Proposamena ez dator bat deialdi honen xedearekin
4.	15383965R	Proposamenaren formatua ez dator bat deialdi honetarako eskatzen denarekin: Powerpointa da
5.	160573008	Lan originalak eskatzen dira; honako hau argitaratuta dagoen lan baten parte baten itzulpena da.
6.	16088031Z	Ikasmaterial nahiz eskuliburu forma izateko, proposamen honen laginak ez ditu bete gutxieneko baldintzak
7.	30680989R	Edukiaren antolaera berrikustea komeni da
8.	45679616Y	Ikasmateriala baino gehiago, proposamenak ikerkuntza-monografia dirudi
9.	72578969	Ikasmateriala baino gehiago, proposamenak ikerkuntza-monografia dirudi
10.	72662254K	Hezkuntza berrikuntza deialdietarako aproposagoa dirudi, ikasmaterialen deialdirako baino
11.	78887716Q	Ikasmaterialen deialdiaren barruan sartzeko, testuak era argiago batean etorri behar du bat irakasgaiarekin

OHARRAK:

1. ESKUIZKRIBUAK PRESTATZEKO ARAUAK ETA ONARPEN-BALDINTZAK:

- Eskuliburu-izaera, eta, ondorioz, argitaragarritasuna, behin betiko lana aztertu ondoren ziurtatuko da.
- Argitaratu aurretik, litekeena da lanaren izenburua doitu behar izatea (argitasuna, zehaztasuna edota erakargarritasunagatik, edo balizko irakurlea ez nahasteko).
- Litekeena da zenbait kasutan Balioespen Batzordeak lanaren luze-laburtasunaren inguruko gomendio/eskaera batzuk egitea erredaktatzaileei.
- Balioeste Batzordea egileekin harremanetan jarriko da lanaren erredakzio eta edizio-kontuetan egokiak iruditzen zaizkion oharra helarazteko eta zalantzak argitzeko.

2. LANAK IGORTZEKO MODUA ETA EPEAK:

Lanak behin erredaktatuak direnean, eta haien edizio-prozesuari ekiteko, hona noizko eta nola bidali behar diren:

- Lanak NORA bidali: argitaletxea.deialdiak@ehu.eus helbide elektronikora.
- Lanak NOIZKO bidali (beranduenez, lehenago ere bidal baitaitezke):
 - A modalitateko lanak igortzeko epea: 2021eko abenduaren 15a.
 - B modalitateko lanak igortzeko epea: 2021eko apirilaren 15a.

Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordeari helaraziko zaio agiri hau, hemen erabakitakoa berresteko eta parte hartzeko eskaera egin duten pertsonen horren berri emateko.

Leioan, 2021eko martxoaren 3a.


Jesus Mari Makazaga Eizagirre
Euskarazko Aholkularitza
eta Testugintzaren arloko zuzendaria




Beire Escajedo San-Epifanio
Argitalpen Zerbitzuko zuzendaria